


17.– MELEAGRO TA BASURDEA (Kalindon)



Bein baten Kalindon eritxon lur-aldean basurde aundi ta bildurgarri bat agertu zan eta basurde onen bildurra zabaldu zan ingumari guztian, uztza guztiak ondatzen ebalako eta gaiñera ipinten eutsoezan esi ta traba guztiak zapuztuten ebalako..

Bere aurka joan ziran eiztaririk geienak il ebazan eta bizirik gelditu ziranak ez euken adorerik barriro bera eizatza joateko.

Bertako bizi-lagunak ba, basurdea etorrrela entzuten ebenean guztiak iges egiten eben.

Diana, eiztarien jainkoak bialdua zan basurde ori. Bertako erregeak eskiñi bear eutson oparia eskiñi ez eutsolako.

Nekazariak jainkoagana joan ziran, oraingoan opariak eskuetan ebezala, basurde ori eurakandik urrintzeko bero-bero eskatuz.

Bitartean Meleagro erregeak eiztari eta gudagizon guztai eskatu eta eskatu ebillan, basurdetzarra ilten lagundu ekioen.

Neon erregearen eta Altea-ren semea zan Meleagro adoretu au..Gizon trebe ta ausart asko batu ziran Meleagro-ren aurrean.

Eiztari orreikaz batera etorri zan Atalanta neskaitilla adoretua, ederra eta txarmanta be. Atalanta au Diana-ren adiskide aundia zan eta iñok ez ekian argi noren alabea zan. Bere gurasoak basoan itzi ei eben eta artz batek artu eta bere umeakaz batera azi eban. Dana dala laster maitemindu zan Meleagro Atalanata-gaz Baiña Altea erregiña ama artega egoan: Onek aurra izan eta laster ikuskizun bat euki ei eban: Iru balbe-irule agertu jakozan eta oneik esan eutsoen surtan egoan illentia erreten zanean ulertuko ebalajaia-berriaren bizi.. Ikuskizun ori amaitu zanean, oetik jagi eta sutondora joan zan eta illentia surtatik atera eta urez ondo itzali eban eta gero kutxa baten gorde eta giltza berak jaso eban.

Gertatu bearrekoak ondo gertatu ondoren, joan ziran eiztariak eizara, zaldi-gaiñeetan, basurdearen billa.. Aurretik joiazan Meleagro ta Atalanta. Sartu ziran eiztariak txakurrakaz baso-barrura eta agertu zan basurdea txakurren ausiak izututa. An batu ziran beste eiztariak be basurdea garbitzeko.

Zauritu eben basurdea eta agotik bitza dariola anker erantzun eutsen eta gizon asko ondatu ebazan. Gero zuzen joan zan gazte bien aurka su-ta-gar. Meleagro belau bat lurrean eta azkona eskuetan ebazala jarri zan eta

uztai lokarriari tira egin, jaurti basurdeari gezia eta biotzeraiño sartu eutson. An jausi zan ankaz gora basurdea, orroa ikaragarri bat eginda.

Burua ebagi eutsoen basurdeari eta narrua kendu eta burua ta narrua Atalanta-eri emon eutsozan. Meleagro-k bere maitasunaren ezaugarri.

Meleagro-ren osaba biak, Alteaaren nebak, ez egozan pozik. Eta Atalanta-ri kendu egin eutsoen Meleagro-ren opari. Asarratu zan Meleagro, artu eban uztai eta osabai gezi bana jaurti eutsen eta biak il ebazan.

Altea erregiña zoratu egin zan barri orreik entzun ebazenean, joan gordeta eukan giltzaren billa, eta kutxa edegi-ondoren, enborra surtara bota eban eta enborra beingoan jarri zan sutan, dana auts biurtu arte.

Meleagro zutunik egoan osaben gorputzai begira bekoki illunagaz eta aienaka asi ei zan biotza eskuakaz estututa. Atalanta joan jakon laguntza, baiña alperrik, antxe il zan Meleagro.

Orrelan bete zan Altea erregiñeak ikusitako ikuskizun baltza.

Altea, asarrea igaro-ondoren bere onera etorri zanean, konturatu zan berak il ebalaja bere semea anaien eriotzearen barriak emon eutsoen naigabeak nastauta. Kokildu zan egindako okerragaz eta txarragoa egin eban: bere buruari bizi kendu.

Olazar-tar Martin-ek